

**Fisioterapiako gradu amaierako lana kudeatu,
prestatu eta defendatzeko arautegi espezifiko
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea.**

ZIOEN AZALPENA

Irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuaren III. atalean graduko ikasketa ofizialen ingurukoak ezartzen dira, eta bertan esaten da Gradu Amaierako Lana (aurrerantzean, GRALa) egitea eta gainditzea nahitaezkoa eta ezinbestekoa dela titulu ofiziala eskuratzeko. GRALak sei eta hogeita hamalau kreditu artean balioko du, ikasketa planaren azken fasean egin beharko da eta haren bidez ebaluatuko da noraino eskuratu dituen ikasleak tituluari lotutako gaitasunak. Dekretuak ez du besterik esaten GRALa egiteko eta ebaluatzeko prozesuaz, eta, beraz, unibertsitate bakoitzak arautu behar du hori bere autonomia erabiliz. Testuinguru horretan, gradu amaierako lanak modu homogeneoan planifikatu eta ebaluatzeko irizpide eta prozedura komun batzuk ezartze aldera, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Gobernu Kontseiluak, 2011ko martxoaren 7an egindako bileran, esparru arautegi bat onartu zuen (EHAA: 2011ko apirilaren 19a, asteartea, 2223. zk.). Harrez gero, UPV/EHUko esparru arautegi horri zenbait aldaketa egin zaizkio, orain indarrean dagoen bertsiora heldu arte, zeina Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2024ko otsailaren 7an (EHAA: 2024ko apirilaren 10a, asteazkena, 71. zk.).

Medikuntza eta Erizaintza Fakultateak GRALa egin eta defendatzeari buruzko arautegi espezifiko bat egiteko premia ikusi du.

1. ARTIKULUA. HELBURUAZ ETA APLIKAZIO EREMUAZ.

1.1. Arautegi honek Medikuntza eta Erizaintza Fakultateak Fisioterapiako graduko ikasketa planetan zehaztutako GRALak definitu, egin, defendatu, kalifikatu eta tramitatzeko irizpideak jasotzen ditu.

1.2. Arautegi honen edukia, besteak beste, ebaluazio sistemaren, kredituen transferentzia eta onarpenaren eta ikasleen mugikortasunaren arloetan indarrean dauden UPV/EHUko gainerako arau eta prozedurekin osatuko da.

1.3. Fisioterapiako graduko GRALen batzorde bat eratuko da, defentsa kudeatzeaz, epaimahaiak osatzeaz eta sailekiko harremanez arduratzeko.

2. ARTIKULUA. GRADU AMAIERAKO LANAREN IZAERAZ

2.1. Gradu Amaierako Lana gauzatzeko, ikasle bakoitzak, banaka, proiektu, memoria edo azterlan original bat egin behar du, eta bertan graduiko ikasketa aldiaren jasotako prestakuntza gaiak eta lortu dituen ahalmen, gaitasun eta trebetasunak bildu eta garatu behar ditu. Zuzendari batek gidatuko du lan hori. Onartzen da lana zuzendari batek baino gehiagok elkarrekin zuzentzea, baina horretarako eskaria egin behar da, ikasturtea hasten den urteko urriaren 31 baino lehen.

2.2. GRALa titulazioarekin lotutako gaitasun orokorrak aplikatzeari eta, oro har, ikaslearen ikasketa arlokoak izango diren datu garrantzitsuak bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatzeari begira egingo da, ikasleak zientziari edo teknologiari loturiko gai nabarmenei buruzko gogoeta egin eta iritzia eman dezan eta gogoeta eta iritzi horiek kritikoak, logikoak eta sortzaileak izan daitezzen.

2.3. Gradu Amaierako Lana graduiko azken mailan defendatu eta ebaluatuko da, ikasleak ikasketa planean geratzen zaizkion irakasgai guztietarako matrikula behin eginda.

2.4. Gradu Amaierako Lana Jabetza Intelektualari buruzko Legeak babestutako lana da. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lana egin duena izango da, ikaslearen Gradu Amaierako Lana esleitzeko dokumentuan bestelakorik zehaztu ez bada, beraren onarpenarekin eta indarreko legerian zehaztutako baldintzen arabera. Azken kasu horretarako, ikasleak «partekatutako jabetza intelektualaren eskaera» bete beharko du (web orrian dago).

3. ARTIKULUA. GRADU AMAIERAKO LANA EGITEKO IRIZPIDE NAGUSIAK

3.1. Lanak eskatzen badu jardueraren bat egitea gizakiekin, haien datuekin eta laginekin, animaliekin, edo agente biologikoekin edo genetikoki eraldatutako organismoekin, zuzendariak lanaren ondorio etikoak aztertuko ditu eta begiratuko du ea Ikerketako Etika Batzordearen (IEB) baimena eskatu behar den. Kasu horietan, Ikerketa eta Irakaskuntzako Etika Batzordearen jarraibideetan aipatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu ikasleak, GRALa defendatzeko gainerako dokumentuekin batera. Alderdi hori arreta bereziz gainbegiratu beharko du tutoreak.

3.2. GRAL guztietan jasoko da egindako lanari buruzko gogoeta bat, printzipio eta balio demokratikoei eta garapen jasangarrirako helburuei (GJH) jarraituz egina. Gogoeta horrek aztertuko du GRALak balio horiekin eta GJHek osatzen duten lan esparruarekin duen lotura, eta/edo horiekiko ikuspegi kritikoak planteatu ditzake. Gogoetak 200 hitz izango ditu gutxienez, eta atal espezifikoa izango da lan idatzian. **Printzipio eta balio demokratikoen eta Garapen Jasangarriko Helburuen (GJH) argitan egindako lanari buruzko** gogoeta atala eskuizkribuaren gorputzean sartu beharko da, ikasleek eta dagokien zuzendariak libreki aintzat har dezaten. Gainera, ikasleak lanaren erreferentziarako GJHak adieraziko ditu, unibertsitateak GAUREn jarriko duen prozeduraren bidez.

4. ARTIKULUA. IZENA EMATEAZ ETA DEIALDIEZ

4.1. GRALerako matrikula unibertsitateak matrikula egiteko ezarriko duen epe orokorrean egingo da, edota kasuan kasuko ikasturtean zehar, UPV/EHUren oinarriko

egutegiaren arabera hurrengo ikasturtea hasiko den data ofiziala baino lehen betiere. Matrikula hori egiteko, ikasleak bete egin beharko ditu GRALaren defentsa egin ahal izateko baldintzak, eta, era berean, GRALari dagozkion kredituak ordaindu beharko ditu, prezio publikoen arabera. Edozelan ere, Gradu Amaierako Lanaren matrikula egin ahal izateko, ikasleak matrikulatuta izan beharko ditu ikasketa plana bukatzeko geratzen zaizkion irakasgai guztiak.

4.2. GRALa ebaluatu eta gaindituz gero, eta ikasturtea oraindik gainditu gabeko bestelako kredituekin itxiko dela aurreikusten bada, GRALa Ez Aurkeztutzat bezala kalifikatuko da, eta ez da lortutako kalifikazioa espedientera igoko kreditu guztiak gainditu eta gradu-titulua lortzeko moduan egon arte. Hori dela eta:

4.2.1. Ezohiko deialdia igaro ondoren, irakasgairen bat gainditu ez duten ikasleek, oraindik GRALa defendatu ez badute, ezin izango dute GRALaren defentsa eskatu ikasturte horretan.

4.2.2. GRALaren defentsa, Gradua lortzeko beharrezko diren irakasgai guztien kalifikazioa jakin aurretik egin bada, eta azkenean, ikasturte horretan berreskuratu ezin den ikasgairen baten kredituak gainditu ez direla ondorioztatzen bada, GRALaren aktan Ez Aurkeztutzat agertuko da. Epaimahai ebaluatzaileak emandako kalifikazioa, ez da espedientean sartuko, kreditu guztiak gaindituta egon arte eta gradu-titulua eskatu ahal izan arte.

4.3. Matrikulak eskubidea emango dio ikasleari ikasturte bakoitzean bi deialdi ofizialera aurkezteko, Gobernu Kontseiluak onartutako egutegi akademikoan zehaztutakoarekin bat. Deialdi biak graduak azken mailako bigarren lauhilekoan izango dira. Lana unean uneko ikasturtean ezarritako deialdietan defendatu ez duen edo gainditu ez duen ikasleak matrikula egin beharko du berriro hurrengo ikasturtean. Ikasleak karrera amaierako aparteko deialdia eskatu ahal izango du Graduak Ikasketen Gestiorako Araudian zehaztutako baldintzei jarraituz.

4.4. Fakultateak GRALak defendatzeko datak jarriko ditu urtero, gutxienez bi epetan ikasturte bakoitzean, eta kontuan hartuta GRALak azken mailako bigarren lauhilekoko irakasgaia dela.

4.5. Ikasleek Gradu Amaierako La zein hizkuntzatan egin eta defendatu nahi duten zehaztuko dute. Prozesuaren hasieran zehaztu duten hizkuntza izan beharko da.

4.6. Gradu Amaierako Lanaren ebaluazioaren akta unibertsitateko ebaluazio arauari jarraituz itxi beharko da eta epaimahaiko idazkariaren ardura izango da akta behar bezala bete eta fakultateko administrazio zerbitzuei helaraztea. Fakultateko zuzendaritzak zainduko du artikulua honetan ezarritakoa betetzen dela.

5. ARTIKULUA. ZUZENDARIA, HURA ESLEITZEA ETA LANAREN GAIA AUKERATZEA.

5.1. Graduan irakaskuntza duen sailen bateko kide diren irakasleek edo Medikuntza eta Erizaintza Fakultateari atxikitakoek zuzenduko dute Gradu Amaierako Lana, ahal dela doktore izanik. Irakaslearen ardura izango da ikasleari lanaren ezaugarriak azaltzea, ikasleari lana egiteko orientazioa ematea eta zehaztutako helburuak betetzen direla zaintzea, bai eta lanaren jarraipena egitea eta ikasleari lana defendatu aurretik emango zaion txostena idaztea ere.

5.2. GRALaren zuzendarikideak hauek izan daitezke:

5.2.1. UPV/EHUko irakasle doktoreak.

5.2.2. Doktoratu aurretik kontratatutako langileak, kontratuak horretarako aukera ematen duenean.

5.2.3. UPV/EHUrekin loturarik ez duten unibertsitate-ospitaleko langileak, edo UPV/EHU ez den beste erakunde edo organismo bateko langileak. Unibertsitate-graduaren baliokidea den mailako prestakuntza akademikoa izan beharko du.

5.3. Prozesuan zehar, GRALa zuzentzen duen pertsonak UPV/EHUrekin duen kontratututara eteten badu, sailak ordezko bat izendatuko du kargua utzi eta bi aste epean. Iraupen luzeko lan-bajaren jakinarazpenaren aurrean, Sailak zuzendarikide bat izendatu beharko du, gutxienez zuzendaria bueltatu arte.

5.4. Fisioterapiako gradua irakasten duten sailek ikasle kopuru bat gidatu beharko dute, hizkuntza ofizial bietan. Kopuru hori zehaztuko da gradu bakoitzean sail bakoitzak dauzkan eskola orduen arabera, ikastegiko web orrian urtero argitaratzen diren taulen arabera, eta ikasturte bakoitzean matrikulatutako ikasleen kopurua kontuan hartuta.

5.5. Ikaslea GRALean matrikulatu ondoren, fakultateak bi epe jarriko ditu GRALa inskribatzeko GAUREn bidez:

Lehenengo epea izango da ikaslearen eta GRALeko zuzendariaren arteko borondatezko akordioa dagoen GRALetarako. Ikaslearen ardura izango da GRALa eta zuzendaria GAUREn bidez inskribatzea horretarako zehaztuko den epean. GRALeko zuzendariak GAUREn bidez balidatuko du inskripzioa, eta hortik aurrera esleipena eginda egongo da eta zuzendaria eta ikaslea proiektuari lotuta geratuko dira. Borondatezko fase honetan ez zaio mugarik jarriko sail bakoitzeko GRAL kopuruari, eta lehentasuna emango zaie borondatez adostutakoei.

Bigarren epea izango da sailek edo irakasleek aplikazioan jarritako GRALak derrigorrez esleitzeko. Beharrezkoa izanez gero, graduan irakaskuntza daukaten sail guztiek eskaini eta zuzendu beharko dute GRALen kuota jakin bat, Ikastegiko Batzarrak ikasturte bakoitzerako zehaztuko duen banaketaren arabera. Banaketa fakultateko web orrian argitaratuko da. Borondatezko akordioak egiteko epean kuota hori bete duten sailek ez dute GRAL berririk eskaini beharko bigarren epean. Bigarren epean ikasleari esleituko zaio eskainitako artetik berak lehentasuna eman diona, bere espedientea kontuan hartuta.

5.6. GRALa GAUREn inskribatzen denean eremu hauek bete beharko dira nahitaez:

- Izenburua.
- **GRALeko zuzendaria atxikita duen** irakasgunea, edo Leioako egoitza, edo Erizaintzako atala.
- Mota: jarri «ikastegikoa».
- Titulazioa (gradua).
- Zuzendaria.
- Indibiduala /Taldean: aukeratu: «indibiduala».
- Deskribapen bat egin behar da.
- Egin beharreko lanak.
- Helburuak.
- Orduak, guztira: 150.
- Iraupena: zehaztu: 2024/09/9tik 2025/05/23ra.
- Hizkuntza (lanarena eta defentsarena izango da):

6. ARTIKULUA. EPAIMAHAI AZ

6.1. Fisioterapiako graduako irakaskuntzaren ardura duten sailek bermatuko dute eskaintako GRALen defentsetarako epaimahaiak eratuko dituztela. Urriaren 31 baino lehen ikastegiak sail guztiei jakinaraziko die zenbat ikaslek hartu behar duten parte epaimahaietan, sail bakoitzari dagozkion eskola orduen proportzioan. Epaimahaiak eratzeko garaian, sailetako zuzendariek ikastegiari helaraziko diote sailetan izendatu diren epaimahaikideen zerrenda.

6.2. Epaimahai bakoitza hiru kidek eta, gutxienez, ordezeko batek osatuko dute, eta guztiak izan beharko dira fakultateko irakasleak, eta graduan eskolak ematen dituztenak. Epaimahai bakoitzean Epaimahaiburu bat eta Idazkari bat egongo da. Epaimahaiburuak eta Idazkariak izendatzeko, lehentasuna izango irakaskuntza-kategoriaren eta antzintasunaren irizpideek, eta hala jardungo dute jardun guztietan.

6.3. Interes talka. GRAL baten zuzendaria ezin izango da GRAL horretarako epaimahaikidea izan. Bateriaezintasuna sortzen denean, ordezeko epaimahaikideak jardungo du eta epaimahaiko buruaren erantzukizuna izango da hori hala izan dadin bermatzea. Era berean, ebaluatu beharreko ikasleari dagokionez Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legean (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 23. art.) aipatzen diren abstenitzeko arrazoiak dituen irakaslea ezin izango da haren epaimahaiko kidea izan.

6.4. GRALa entregatzeko epea amaituta, GRALen koordinatzaileak deialdi bakoitzerako epaimahaiak eratuko ditu, eta ikastegiko idazkaritzari emango dio haien berri, GAUREn sar ditzaten. Epaimahaiak behin eratuta eta GRALaren defentsaren lekua, eguna eta ordua behin ezarrita, ikastegiko idazkaritzak behar besteko tarteaz emango die haien berri ikasleei eta zerikusia duten irakasleei. GRALen epaimahaietako kideek ADDI plataformaren bidez jasoko dituzte ikasleen GRALak.

6.5. Epaimahai bakoitzeko idazkariak kalifikazioa sartuko du GAUREn eta nota berrikusteko epea ezarriko du. Ohorezko matrikularako kandidatuak horren jakitun jarriko ditu GRALen koordinatzaileak. Berrikuspenerako epea amaituta, eta GRALen koordinatzaileak behin onespena emanda, epaimahaiko idazkariak espedientean sartuko du kalifikazioa eta kalifikazio akta eskatuko dio idazkaritzari, epaimahaiko hiru kideek sina dezaten. Akta beti sinatu beharko da GRALen deialdi bakoitzeko aktak ixteko azken eguna baino lehen.

7. ARTIKULUA. GRADU AMAIERAKO LANAREN AURKEZPENAZ ETA DEFENTSAZ.

7.1. GRALa egitean ikasleak eta zuzendariak gutxienez hiru tutoretza saio egingo dituzte (hasierakoa, tartekoa eta amaierakoa).

7.2. GRALa behin amaituta, eta zuzendaria eta ikaslea ados jarrita, ikasleak ADDI plataformara igoko du GRALaren bertsio elektronikoa eta defentsarako eskaria egingo du GAUREn bidez. Eskaria behin jasota, zuzendariak ebaluazio txostena idatziko du GAUREn bidez.

7.3. Zuzendarikiderik badago, hark ere igo beharko du bere txostena GAURera. Bertsio elektronikoa hori joko da GRALaren jatorrizko bertsiotzat, eta hori aztertu eta ebaluatuko du epaimahaiak.

7.4. Ikasleak aurrez aurre defendatu beharko du GRALa.

7.5. Ikasleak prozesuaren hasieran aukeratu duen hizkuntzan egin, aurkeztu eta

defendatu beharko du lana, titulua egiaztatzeko memorian ezarritakoaren arabera, baldin eta kasuan kasuko hizkuntzan gaitasuna duen epaimahaia osatu ahal bada. Edonola ere, GRALa autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan idatzi eta defendatzeko eskubidea bermatuko da.

7.6. Ikasleak defentsa egiteko hamar minutu izango ditu gehienez, eta tarte horretan bere lanaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azaldu beharko ditu. Gero, epaimahaiko kideen galdera, argibide eske, iruzkin edo iradokizunei erantzun beharko die.

8. ARTIKULUA. EBALUAZIOAZ ETA KALIFIKAZIOAZ

8.1. Ikaslearen aurkezpena bukatutakoan eta zuzendariaren txostena ikusitakoan, epaimahaiak ikasleari eman beharreko kalifikazioa eztabaidatuko du. Arauzkoa izango da lana zuzendu duenaren txostena eta %60a balioko du azken kalifikazioan. Gainerako %40a epaimahaiari dagokio, fakultatearen webgunean argitaratutako orientazio gidaliburuan ezarritako irizpideekin bat etorrira hartu beharrekoa. Ebaluatu beharreko ikasleari dagokionez Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legean (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 23. art.) aipatzen diren abstenitzeko arrazoiak dituen irakaslea ezin izango da haren GRALaren zuzendaria izan.

8.2. Ikasleak lana gainditzen ez badu, epaimahaiak lana hobetzeko iradokizunak jasotzen dituen txosten bat helaraziko dio ikasleari, lana berriz ebaluatzen denerako. Zuzendariari ere txostenaren kopia bat bidaliko zaio.

8.3. Kalifikazioa epaimahaiak zehaztuko du, eta 0tik 10era bitarteko zenbakizko eskalan emango da, hamartar bakarrarekin, eta kalifikazio hori letraz ere adieraziko da:

Aurkezteke (AKE)

0-4,9: Suspentso (S)

5,0-6,9: Nahikoa (N)

7,0-8,9: Oso ongi (OO).

9,0-10: Bikain (B)

8.4. GRALa defendatzeko eskaria aurkezteak berekin dakar lana epaimahaiaren aurrean azaldu beharra. Ikaslea agertzen ez bada epaimahaiaren aurreko defentsara behar bezala justifikatu barik, «suspentso» kalifikazioa jasoko du. GRALaren defentsarako eskaria egiten ez badu, ikasleari «aurkezteke» kalifikazioa jarriko zaio deialdi horretan.

8.5. Ikasturteko GRAL guztiak kalifikatu ondoren, fakultateak «ohorezko matrikula» eman ahal izango die matrikulatutako ikasleen %5i gehienez ere. Epaimahaiak proposatutako Ohorezko Matrikulen kopurua, esleitu daitekeena baino handiagoa denean, interesatuta dauden ikasleek GRALen defentsa berri bat egitera deituak izango dira epaimahai berri baten aurrean. Epaimahai honetan, ohorezko matrikulen proposamenak egin dituzten epaimahaien presidentek edota idazkariak hartuko dute parte.

8.6. Epaimahai bakoitzeko idazkariak kalifikazioa sartuko du GAUREn eta nota berrikusteko epea ezarriko du. Ohorezko matrikularako kandidatuak horren jakitun jarriko ditu GRALen koordinatzaileak. Berrikuspenarako epea amaituta, eta GRALen koordinatzaileak behin onspena emanda, epaimahaiko idazkariak espedientean sartuko du kalifikazioa eta kalifikazio akta eskatuko dio idazkaritzari, epaimahaiko hiru kideek sina dezaten. Akta beti sinatu beharko da GRALen deialdi bakoitzeko aktak ixteko azken eguna baino lehen.

8.7. Gradu amaierako lanen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak unibertsitateko ebaluazio arautegiari jarraituz egingo dira, baina epaimahaia tartean dagoenez, ebaluazioaren lehenengo berrikuspena epaimahaia berak egingo du eta, ondoren, fakultateko erreklamazio batzordeak emango du erabakia; erabaki horren kontra gorako errekurtoa aurkeztu ahalko zaio unibertsitateko errektoreari.

8.8. Nolanahi ere, GRALaren kalifikazioa urriaren 31 baino lehen agertu beharko da matrikulatutako ikaslearen espedientean.

9. ARTIKULUA. DATUAK ERABILTZEAZ ETA LAGATZEAZ. GRADU AMAIERAKO LANEN ORIGINALTASUNAZ

8.1 Jabetza intelektualarekiko begirunea funtsezko araua da arlo akademikoan. UPV/EHUK jakitun jarriko ditu ikasleak plagioa unibertsitateko prestakuntza gobernatzeko duten printzipioen kontra doala. Gradu Amaierako Lana Jabetza Intelektualari buruzko Legeak babestutako lana da. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lana egin duena izango da, GRALa esleitzeko dokumentuan bestelakorik zehaztu ez bada, ikaslearen beraren onarpenarekin eta indarreko legerian xedatutako baldintzen arabera.

8.2 Plagiatzeak—hots, inoren lana norberarena balitz bezala aurkezteak edo testuak edo irudiak kopiatzeak haien jatorria aipatu barik norberarenak direla esanez edo hori aditzera emanez— zero kalifikazioa ekarriko du automatikoki. Horretaz gain, plagioa egiten duenak horrek dakartzan zigorrak ere jaso litzake.

8.3 Argitaratzeke dauden beste azterlan edo proiektu batzuetako datuak erabiltzen laga badiote, ikasleak eduki beharko du lan horien egileen baimen idatzi eta berenberegiz emana, eta GRALean datu horien jatorria aipatu beharko du, inolaz ere beretzat hartu barik haien jabetza intelektuala. Datuak dagoeneko argitaratuta egonez gero, ohiko moduan aipatuko da iturria.

8.4 Ikerketa proiektu erako GRALa egiten badu (IP-GRALa) eta erabili behar badu osasun sistema publiko edo pribatuko pazienteen informazioa historia klinikoan, elkarrizketen edo halakoen bidez, ikasleak kontuan izan beharko du horri buruzko legeria (2016/679 EB erregelamendua, Europako Parlamentuarena, eta SS/81/2017 Agindua). Arau horietan zehazten da halako informazioa erantzukizunez, zilegitasunez, fideltasunez eta gardentasunez erabili behar dela. Hori betetzeko, arduradunak (tutoreak) ziurtatu behar du adostasun eta pseudonimizazio printzipioak betetzen direla, eta ikastegiak ere baimena eman duela, aurretik tutoreak horren aldeko txostena eginda eta kasuan kasuko etika batzordeak horren aldeko irizpena eman eta gero.

Eranskin gisa erantsi dira datuak babestearen inguruko arau i berrienak, historia klinikoari eta osasun datuei dagokienez.

AZKEN XEDAPENA

Arautegi hau indarrean sartuko da Fakultateko Batzarrak onartu eta biharamunean.

ERANSKINA

UPV/EHUko MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEKO GRALari BURUZKO ARAUTEGI BERRIRAKO AINTZAT HARTU BEHARREKO ARAUTEGIAK

Pazienteekin edo haien historia klinikoak, inkestak edo antzeko metodologia erabilia egingo diren IP-GRALetarako (ikerketa proiektu erako GRALetarako) besterik ez.

1.- Oinarrizko jarraibideen protokoloa, Osasun Zientzietako ikasleek eta egoiliarrek pazienteen intimitate eskubidea bermatu eta babestekoa.

SSI/81/2017 Agindua, urtarrilaren 19koa, zeinaren bidez argitara ematen den Estatuko Osasun Sistemaren Giza Baliabideetako Batzordearen Erabakia, onartzen duena oinarrizko jarraibideen protokoloa, Osasun Zientzietako ikasleek eta egoiliarrek pazientearen intimitate eskubidea bermatu eta babestekoa. BOE: 31. zk., 2017ko otsailaren 6a (astelehena), III. atala, 8278 or.

2.- Pertsona fisikoen babesa, datu pertsonalen tratamenduari eta datuon zirkulazio askeari dagokionez.

(EB) 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, indar gabe uzten duena 95/46/CE Zuzentaraua (datuak babesteko arautegi orokorra).

1.- Oinarrizko jarraibideen protokoloa, Osasun Zientzietako ikasleek eta egoiliarrek pazienteen intimitate eskubidea bermatu eta babestekoa.

SSI/81/2017 Agindua, urtarrilaren 19koa, zeinaren bidez argitara ematen den Estatuko Osasun Sistemaren Giza Baliabideetako Batzordearen Erabakia, onartzen duena oinarrizko jarraibideen protokoloa, Osasun Zientzietako ikasleek eta egoiliarrek pazientearen intimitate eskubidea bermatu eta babestekoa. BOE: 31. zk., 2017ko otsailaren 6a (astelehena), III. atala, 8278 or.

Osasunari buruzko datuak babestea oinarrizko eskubidea da, eta maila goreneko legeen bitartez zehaztu izan da Europako Erkidegoan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren bidez, zeinak indarrik gabe utzi baitzuen aurreko 95/46/EE Zuzentaraua.

5.4Ikasleak uneoro gainbegiratuta egongo dira, eta ezin izango dute jo ez pazientearengana ezta hari buruzko informazio klinikora ere, prestakuntzaz arduratzen den laguntza zentroko langileek zuzenean gainbegiratu gabe, betiere Osasunari buruzko Lege Orokorren 104. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri, ekainaren 28ko 1558/1986 Errege Dekretuan, Unibertsitateen eta Osasun Institutuzioen arteko hitzarmenen erregimenaren oinarri orokorrak zehaztutakoan, xedatutakoarekin lotuta, eta kasuan-kasuan aplikatu beharreko hitzarmenetan eta bestelako autonomia araudietan ezarritakoaren arabera.

7.2Osasun zerbitzuko historia klinikoa eskuratzea helburu epidemiologikoetarako, osasun publikoari lotutako helburuetarako edo ikerketa edo irakaskuntza helburuetarako.

7.2.1 Pazientearen Autonomiari buruzko Oinarrizko Legeak 16.3 artikuluan dio historia klinikoa erabiltzen denean helburu judizial edo epidemiologikoetarako edo osasun publikoari edo irakaskuntzari lotutako helburuetarako, pazientea identifika dezaketen datu guztiak banatu behar direla datu kliniko asistentzialetatik, hartara anonimotasuna berma dadin, pazienteak berak datu mota biak ez banatzeko baimena eman duenean izan ezik.

Datuak bereizi beharagatik banatu egin behar dira zientziaren ikuspegitik baliagarriak diren datuak (kliniko-asistentzialak, gure kasuan) eta titularra identifikatzeko aukera ematen dutenak (historia klinikoaren zenbakia, Gizarte Segurantzako zenbakia, NAN etab).. Datuak bereizi beharko ditu lanbide sekretuari lotuta dagoen profesional batek edo antzeko sekretu betebeharra duen beste pertsona batek.

Irakaskuntzaren eremuan, datu pertsonalak bereizita dituzten historia klinikoetan edo irakaskuntzaren arduradunak simulatutako historia klinikoetan sartzeko aukera izango dute ikasleek, horrelakoetan oinarritutako ikaskuntza osasun datuen intimitatea eta konfidentzialtasuna errespetatuz egiten dela bermatzearen.

7.2.2. IKASTEGIKO ZUZENDARIAREN BAIMENA. TUTOREAREN TXOSTENA. DAGOKION ETIKA BATZORDEAREN ALDEZ AURRETIKO IRIZPENA.

7.2.2. Ikastegiko zuzendaritzak historia klinikoaren erregistrora sartzea baimenduko du. Erregistroaren arduradunak bideratuko du baimen hori, hartarako tutorearen edo ikerketa/master/berezko titulu/doktoregoaren arduradunen aurretiazko txosten arrazoitua eskatuko du, eta ikerketako/jardun asistentzialeko Etika Batzordearen irizpena ere jaso beharko du alde aurretik. Sarbidea baimentzen duten xede zehatzen arabera denbora muga izango du baimen horrek.

7.2.3Ikerketaren helburuekin zerikusia duten historia klinikoko datuak baino ezin izango dira erabili, inolaz ere adierazi barik azterlan edo ikerketan parte hartzen duten pazienteak

identifikatzeko balio lezaketan ezaugarriak, gertaerak edo inguruabarrak. Beharrezkoa denean irudi medikoak edo ikus-entzunezko bestelako euskarriren bat argitaratu edo erakustea, non ageri diren pazienteak identifikatzeko modua eman lezaketan gorputz parteak, pazienteak horretarako baimen idatzia eman beharko du.

7.2.4 Ikerketa biomedikoaren eta saiakuntza klinikoan dihardutenean, ikertzaileek honako hauek beteko dituzte: 14/2007 Legea, uztailaren 3koa, ikerketa biomedikoari buruzkoa; 1090/2015 Errege Dekretua, abenduaren 4koa, zeinaren bidez arautzen diren medikamentuez egindako saiakuntza klinikoak, medikamentuez egindako ikerketako etika batzordeak eta Azterlan Klinikoan Espainiako Erregistroa, bai eta kasu bakoitzean aplikatu arautegi espezifikoak ere.

7.5 Kopia

7.1.1 eta 7.1.3 ataletan aipatutako moduan historia klinikoa une puntualetan erabili arren, trebatzen ari diren pertsonak, egoiliarrek izan nahiz ikasleak izan, ezin izango dute historia klinikoaren informazioaren kopiarik egin inongo modutan ez inongo euskarritan, pazienteak horretarako baimena idatziz ez eman ez badu, edo, anonimizatuta dauden historia klinikoaren kasuan, historia klinikoaren erregistroaren arduradunak baimena beren-beregi eman barik, tutorearen/irakaslearen proposamenez.

8.1 LBAPen 1.7 artikulua dio pertsona orok duela eskubidea bere osasunari buruzko datuen konfidentzialtasuna errespetatu dadin, eta inork ezin dituela datuok eskuratu legearen arabera baimena izan gabe.

Horrek esan gura du men egin behar zaiola lege horretako 2.7 artikuluan aipatutako konfidentzialtasun/isilekotasun betebeharrari, zeinaren arabera informazio eta dokumentazio klinikoa prestatu edo eskuratzeko duenak isilpean eduki behar du informazio hori.

8.2 Bai egoiliarrek eta bai ikasleek konfidentzialtasun/isilekotasun betebeharra dute, ez bakarrik trebatzen ari diren osasun zentroan dauden bitartean, ezpada trebakuntza behin amaituta ere, eta, gainera, betebeharrak ez da desagertzen pazienteak hiltzen bada.

Konfidentzialtasun betebeharra ez dagokie bakarrik «datu intimoei» (ideia, balio, sineste, bizipen pertsonalei lotutako datu psikologikoak barne); bai eta pazientearen eta bere ingurunearen datu biografikoak ere (intimoak edo ez), zeintzuk beste norbaitek ezagutzeak kolokan jar ditzakeen pazientearen eskubideak.

Konfidentzialtasun/isilekotasun betebeharra ez dagokie bakarrik historia klinikoan jasotako datuei, baina baita ahozko komunikazioen bidez, grabazioz, bideoz eta edozelako artxibo informatiko, elektronikoa, telematiko edo erregistro publiko edo pribatutan jasotakoei ere, desgaitasun mailari eta informazio genetikoari dagozkion datuak barne.

Isilekotasun betebeharra, hala ere, eten egingo da legeak zehaztutako salbuespenetan, hots, isilekotasunari eusteak arriskuan jartzen duenean pazientearen edo beste batzuen bizitza edo kaltea dakarkionean osasun publikoari. Halakoetan, jakitun jarri beharko dira kasu kasuko zerbitzu/unitate asistentzialeko arduradun asistentzialak, behar diren neurriak har ditzaten.

8.3 Horretarako, trebakuntzan dauden guztiek konfidentzialtasun konpromiso bat sinatuko dute (ikus eredu I. eta II. eranskinetan) osasun zentroko egonaldiaren hasieran. Konpromiso hori ikertzaileen erregistro liburuan gordeko da, ikasle gisa ikasleen kasuan, 9. atalean esaten den bezala, eta trebatzen ari diren espezialisten kasuan, Irakaskuntza Batzordean gordetzen dituen espediente pertsonaletan.

Konfidentzialtasun konpromisoa:

Hau adierazten du:

- 1.- Onartzen du pazienteek eskubidea dutela beren nortasuna, giza duintasuna eta intimitatea errespetatu dakizkien, eta eskubidea dutela, baita ere, beren prozesuarekin lotutako informazio guztia konfidentziasunez erabili dadin.
- 2.- Era berean, onartzen du pazienteek eskubidea dutela beren osasunari buruzko datuak konfidentziasunez errespetatu daitezkeen eta, aurrez emandako baimenik ez badago, badute eskubidea ere beren datuak inork ez erabiltzeko. Bat etorrita abenduaren 13ko Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikularekin, onartzen du bere jardunean erabiltzen duen informazioa isilpean gordetzeko betebeharra duela, eta konpromisoa hartzen du, prestakuntza aldi egon bitartean edota aldi hori amaitutakoan, erabiltzen duen informazioa eta dokumentazioa arreta eta konfidentziasun handienaz erabiltzeko.
- 3.- Onartzen du ezin duela transferitu, bikoiztu edo erreproduzitu zentroko jardunean erabiltzen duen informazioa, ez osorik ez zatiren bat. Bestalde, ezin ditu erabili zentroak prestakuntzarako emandako datuak beste xede batzuetarako edo zentroko zuzendariak baimendutako beste helburu batzuetarako.
- 4.- Ezagutu eta onartzen du protokoloa, hau da, osasun zientziekin lotutako ikasleek pazientearen intimitate eskubidea bermatu eta babestera bideratutako oinarritzko jarraibideak zehazten dituen protokoloa.
- 5.- Jakitun da konfidentziasun betebeharra onartzeko arduraduna dela eta hori ez betetzeak ondorio penalak, diziplinazkoak edo zibilak ere ekar ditzakeela.

2.- Pertsona fisikoaren babesa, datu pertsonalen tratamenduari eta datuon zirkulazio askeari dagokionez.

(EB) 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, indar gabe uzten duena 95/46/CE Zuzentaraua (datuak babesteko arautegi orokorra).

IP-GRALetan garrantzitsuak diren definizioak.

Bereziki PSEUDONIMIZAZIOA, ADOSTASUNA, TRATAMENDUA, IKERKETA ETA BERMEAK.

1) «DATU PERTSONALAK»: pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri baten («interesatuaren») gaineko informazio guztia. Pertsona fisiko identifikagarria da haren identitatea zuzenean edo zeharka zehaztu daitekeena, bereziki identifikatzaile baten bidez, hala nola izen bat, identifikazio zenbaki bat, lokalizazio datuak, lineako identifikatzaile bat edo identitate fisiko, fisiologiko, genetiko, psikiko, ekonomiko, kultural edo sozialaren osagai bat edo gehiago.

2) «TRATAMENDUA»: datu pertsonalekin edo datu pertsonalen multzoekin egindako edozein eragiketa edo eragiketa multzoa, prozedura automatizatuek edo bestela, hala nola: haiek biltzea, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, zaintzea, egokitzea edo aldatzea, erazte, kontsultatzea, erabiltzea, komunikatzea (bidaliak, zabalduak edo eskuragarri jartzeko beste edozein bide erabilita), erkatzea edo elkarlotzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea.

5) «SEUDONIMIZAZIOA»: datu pertsonalei halako tratamendua ematea non ezinezkoa den interesatu jakin batekin lotzea informazio gehigarri erabili barik, baldin eta informazio hori aparte badago, eta neurri teknikoak eta antolaketakoak hartu badira bermatzeko datu pertsonalak ez direla lotuko pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri jakin batekin;

7) «TRATAMENDUAREN ARDURADUNA» EDO «ARDURADUNA»: bakarka edo beste batzuekin batera tratamenduaren xedeak eta bitartekoak zehazten dituen pertsona fisiko edo juridikoa, agintari publikoa, zerbitzu edo erakundea.

11) «INTERESATUAREN ADOSTASUNA»: interesatuaren borondatearen agerbide aske, espezifiko, informatu eta zalantzagabea, adierazpen baten bitartez eginga edo baieztatu ekintza argi baten bidez azaldua, zeinaren bidez onartzen duen bere datu pertsonalak tratatuak izatea.

12) «DATU PERTSONALEN SEGURTASUNA URRATZEA»: Segurtasunaren urratze oro, berekin dakarrena bidalitako, zaindutako edo beste era batera tratatutako datuak nahigabe edo bidegabe suntsitu, galdu edo aldatzea, edo datu horiek baimenik gabe komunikatzea edo eskuratzea.

13) «DATU GENETIKOAK»: pertsona fisiko batek heredatutako edo bereganatutako ezaugarri genetikoei buruzko datu pertsonalak, informazio banaka ematen dutenak pertsona horren fisiologiak edo osasunaz, bereziki pertsona horren lagin biologiko baten analitika lortutakoak.

14) «DATU BIOMETRIKOAK»: pertsona fisiko baten ezaugarri fisiko, fisiologiko edo portaerazkoei buruzko datu pertsonalak, tratamendu tekniko espezifiko baten bidez lortuak, eta pertsona jakin bat identifikatzeko edo identifikazioa berresteko modua ematen dutenak, hala nola aurpegiaren irudiak edo datu daktiloskopikoak.

15) «OSASUNARI BURUZKO DATUAK»: pertsona fisiko baten osasun fisiko edo mentalari buruzko datu pertsonalak, jaso dituen osasun zerbitzuei buruzkoak barne, haren osasun egoeraren berri ematen dutenak.

5. artikulua. Tratamenduari buruzko printzipioak: ERANTZUKIZUNA, ZILEGITASUNA, LEIALTASUNA ETA GARDENTASUNA

1. Datu pertsonalak:

- a) interesatuarekin modu zilegi, leial eta gardenean jokatzuz tratatuko dira, («zilegitasuna, leialtasuna eta gardentasuna»).
- b) bilduko dira helburu jakin, esplizitu eta zilegizkoetarako, eta ez helburu horiekin bateraezina den haragoko xede baterako. Datu pertsonal horiek gero tratatzea interes publikoko artxibo bat egiteko, ikerketa zientifiko edo historikorako edo estatistikarako ez da joko hasierako helburuen kontrakotzat, 89. artikuluko 1. atalaren arabera («helburuak mugatzea»).
- c) tratamenduaren helburua betetzeko egokiak eta pertinenteak izango dira, eta horretarako behar direnak baino ez («datuak minimizatzea»).
- d) zehatzak izango dira, eta, behar izanez gero, eguneratuak; arrazoizko neurri guztiak hartuko dira tratamenduaren helburua kontuan hartuta zehatzak ez diren datu pertsonalak ahalik eta arinen ezabatu edo zuzentzeko («zehaztasuna»).
- e) mantenduko dira halako moldez non interesatuekin identifikatu ahal izango dira bakar-bakarrik tratamenduaren helburuak bete arteko epean, eta ez gero; datu pertsonalak epe hori baino luzeago gorde ahal izango dira interes publikoko artxiborako, ikerketa zientifiko edo historikorako edo estatistika helburuetarako, 89. artikuluko 1. atalaren arabera. Hala ere, beti aplikatuko dira interesatuaren eskubideak eta askatasunak babesteko arautegi honek agintzen dituen neurri teknikoak eta antolaketakoak («datuak gordetzeko epea mugatzea»).
- f) tratatuko dira haien babesa bermatzeko moduan, baimenik gabeko edo legez kanpoko tratamenduaren kontrako babesa eta galdu, suntsitu edo istripuz hondatzearen kontrako babesa barne, horretarako dagozkion neurri teknikoak eta antolaketazkoak aplikatuta («integritatea eta konfidentzialtasuna»).

2. Tratamenduaren arduradunak 1. atalean ezarritakoa betetzeko ardura izango du, eta gai izan beharko du hala egin duela frogatzeko («ardura proaktiboa»).

6. artikulua.- Tratamenduaren zilegitasuna

1. Tratamendua zilegi izateko ezinbestekoa izango da baldintza hauetako bat betetzea gutxienez:

j) tratamendua beharrezkoa izatea interes publikoko artxibo helburuetarako, ikerketa zientifiko edo historikorako edo estatistika helburuetarako, 89. artikuluko 1. atalaren arabera, Europako Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidea oinarri hartuta. Halakoetan tratamendua izan beharko da helburuarekiko proportzionala, errespetatu beharko du datuen babeserako eskubidea funtsezkoan, eta neurri egokiak eta espezifikokoak ezarri beharko ditu interesatuaren interes eta eskubide oinarrizkoak babesteko.

89. artikulua. Aplikatu beharreko bermeak eta salbuespenak interes publikoko artxibo helburuetarako, ikerketa zientifiko edo teknikorako edo estatistika helburuetarako tratamenduan.

1. Datu pertsonalak tratatzen direnean interes publikoko artxibo helburuetarako, ikerketa zientifiko edo historikorako edo estatistika helburuetarako, berme egokiak ezarri beharko dira interesatuen eskubideak eta askatasunak babesteko, arautegi honi jarraituz. Horretarako, behar diren neurri teknikoak eta antolaketakoak ezarriko dira, bereziki datu pertsonalen minimizazio printzipioa beteko dela bermatzeko. Neurri horietako bat seudonimizazioa izan

ahal izango da, horrekin helburu horiek betetzen badira. Helburuak bete ahal badira hasiera-
hasieratik edo gerora interesatuak identifikatzen uzten ez duen geroko tratamendu baten
bidez, horrelaxe beteko dira.